

V - BESTELAKOAK

URAREN EUSKAL AGENTZIA MEDITERRANEOKO ARROEN BULEGOA

Erriberabeitian (Araba), Rivabellosan, landako oiloen baserri batetik datozen hondakin-urak isurtzeko baimena

Espediente-zenbakia: VDP-A-2021-0028.

Eskatzailea: Maitane Antón Bodega.

Maitane Antón Bodegak hondakin-urak isurtzeko baimena eskatu du Erribera Beitiako udalerrian, instalatu beharreko arazketa-sistemaren bidezko tratamenduarekin. Horretarako, dagokion dokumentazioa aurkeztu du.

Hori guztia jendaurrean jartzen da, guztiak jakinaren gainean egon daitezen, hogeita hamar egun balioduneko epearen buruan, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta biharamunetik hasita, eskatu den baimenaren ondorioz nolabaiteko kalteren bat hartuko dutela uste dutenek erreklamazioak aurkez ditzaten lurralde-bulego honetan (Forondako Atea kalea 9, 01010 Vitoria-Gasteiz). Espedientea han egongo da ikusgai.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko azaroaren 15ean

Isurketen arduraduna
AITOR BELDARRAIN URIONDO